

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Finantza ekarpena administrazio batzarrentzat, 2026ko ekitaldirako

2026ko ekitaldiko aurrekontu orokorra egitaratzeko udal araudiaren III. eranskinean honako hau azaltzen da:

Barrundiako administrazio batzarren gastuen finantzaketari buruzko ekarpenak arautzen dituzten oinarriak

Lehenengoa. Xedea

Oinarri hauen xedea da Barrundiako udalerriko administrazio batzarren finantzaketaren araubide juridiko orokorra arautzea.

Bigarrena. Definizioak

Finantzaketa da, oinarri hauen eraginetarako, udalak toki administrazio horiei egiten dizkien ekarpenak, haien eskumeneko esparruan jarduerak egiteak dakarzkien gastu arruntei aurre egiten laguntzeko.

Hirugarrena. Onuradunak

Administrazio batzar hauek izango dira onuradunak: Audikana, Dallo, Elgea, Etura, Etxabarri Urtupiña, Gebara, Heredia, Hermua, Larrea, Marieta-Larrintzar, Maturana, Mendixur eta Ozaeta.

Laugarrena. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Toki erakundearen gobernu organoak legez eratuak egon behar dute.
2. Administrazio batzar bakoitzaren errejidore lehendakariak edo hark izendatzen duen pertsonak Barrundiako Udaleko idazkaritzan aurkeztu beharko du, hurrengo urteko irailaren 30a baino lehen, administrazio batzarren kontuen balantze orokorra, ekitaldi bakoitzeko sarrera eta gastuekin.
3. Onuradunek men egin beharko diote udalak egin dezakeen finantza egiaztatze eta kontrol orori.

Bosgarrena. Udalaren betebeharrak

Udalak betebeharrak hauek izango ditu:

1. Udalak urtero jarri beharko du bere aurrekontuetan partida bat transferentzia arrunt gisa, erakunde horiek oinarri hauetan ezarritako moduan egiten dituzten gastuak finantzatzen laguntzeko.
2. Udalak ekarpen bakarrean egingo ditu transferentziak, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 30a baino lehen, baldin eta erakundeek bete badituzte oinarri hauetan adierazitako betebeharrak.

Seigarrena. Finantzaketa irizpideak

Finantzaketa arau honen arabera burutuko da:

1. Urteko aurrekontuko partidatik, ehuneko 50a administrazio batzarrentzat era berdinean zatikatuko da.

2. Urteko aurrekontuko partidatik, ehuneko 25a aurrekontuzko ekitaldiaren urtarrilaren 1eko herri bakoitzean dauden biztanleen arabera banatuko da.

3. Urteko aurrekontuko partidatik, ehuneko 25a 2026ko ekitaldiko hiri ondasun izaera duen OHZko erroldan dauden etxebizitzaren zenbaketaren arabera banatuko da.

Zazpigarrena. Bateragarritasuna beste diru sarrera batzuekin

Oinarri hauetan ezarritako finantzaketa bateragarria da administrazio batzar bakoitzak dituen berezko diru sarrerekin, bai eta beste edozein entitate publiko zein pribatutatik jaso dezakeen beste edozein dirulaguntza edo sarrerarekin ere.

Zortzigarrena. Zehapenak

Oinarri hauetan ezarritako betebeharretakoren bat ez betetzeak urteko finantzaketa ez jasotzea ekarriko du.

Zehapena indarrean egongo da betebeharroriek bete arte.

Edonola ere, eragindako administrazio batzarrari egoztekoak diren arrazoiengatik transferentzia ez bada egiten abenduaren 31 baino lehen, hark galdu egingo du eskubidea dagokion ekitaldiko finantzaketa jasotzeko.

Denen ezagutzarako argitaratzen da.

Ozaetan, 2026ko martxoaren 26an

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA